



**Arartekoaren 2023R-2029-22 Ebazpena, 2023ko maiatzaren 15ekoa. Honen bidez, Andoaingo Udalari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezala trafikoko araudia urratzeagatik jarritako zehapen bat.**

### Aurrekariak

1. Kexagileak Arartekoak esku hartzeko eskatu du, bere ibilgailua Leizotz auzoko Otieta parkearen aldameneko lorategi baten gainean aparkatzeagatik Andoaingo Udalak ezarri dion isuna dela eta.

Salaketa-buletinaren eta zehapen-ebazpenaren arabera Trafikoko Ordenantza Orokorraren 8.5.4 artikulua urratu da.

Interesdunak alegatu du bazterbidean aparkatu zuela, beira-edukiontzi baten aldamenean, eta ez lorategi batean.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ondoren, Arartekoak Andoaingo Udalera jo zuen interesdunak azaldutako gaiei buruzko informazioa eskatzeko eta kexagileari zehapena ezartzeko eta zehapen hori betearazteko bideratutako zehapen-prozeduraren eta premiamenduzko prozeduraren administrazio-espediterearen kopia eskuratzeko.

Administrazio horrek Arartekoari eman dion informazioan prozeduran zehar egindako jarduketak zehazten dira, eta honako hau adierazten da: *“Interesatuak aurkeztutako alegazioa aztertu ondoren, espediente zigortzailearen bideratzaileak aurreko erabaki proposamena eman zuen 2022ko ekainaren 15ean, aurkeztutako alegazioak ezeztatzea eta arau hausleari dagokion isuna jartzea proposatuz.”*. Instruktoarek honako hau adierazten du: *“Idatziarekin batera aurkeztu dituen argazkiek soberan frogatzen dute ibilgailua berdegune batetan zegoela aparkatuta. Hesiturik ez egoteak edo lorerik ez edukitzeak ez du oztopatzen, egitateak azaltzeko, salaketak ‘lorategia’ hitza erabiltzea.”*

Halaber, hauex jakinarazten da:

*“e) Zehapenaren jakinarazpena interesatuari bidali zitzaion 2022ko ekainaren 30ean eta jakinarazpen hori berak jaso zuen 2022ko uztailearen 13an.*

*Jakinarazpenean 15 egun baliouduneko epea ematen zitzaion, jakinarazpena jasotzen zuen egunaren biharamunetik kontatzen hasirik, ezarritako isuna ordaintzeko, ohartaraziz epe horretan isuna ordaindu ezean, premiamenduzko bidetik ordainaraziko zela. Jakinarazpenean isunaren aurka tarteratu zitekeen helegiteen berri ere ematen zitzaion.*





*f) Premiamenduzko probidentziaren jakinarazpena 2022ko abuztuaren 30ean bidali zuen Udalak eta jakinarazpena xxx jaunak jaso zuen 2022ko irailaren 8an.*

*g) Interesatuak isuna ordaindu zuen 2022ko irailaren 19an.*

*Horrek guztiak, agirian uzten du ez dela egia xxx jaunak erakunde horretan aurkeztutako kexa-idatzia esaten duena.”*

3. Udalaren informazioa ikusita, erakunde honek aztertu zuen ea zehapena zuzenbidearen arabera zen eta udalari laguntza eskatu zion zehapena ondorioz gabe uzteko prest ote zegoen jakinarazteko; izan ere, agenteak salatutako egitatea ezin zen sartu azkenean aplikatu zen zehapen-tipoan. Gainera, jakin zen alkateak ez zuela zehatzeko eskumenik, salatutako egitatea gertatu zen bide-mota zela eta.

4. Udalak honako hau erantzun zuen informazio eskariari lotuta:

a) Arau-haustea izan zen tokian (Otieta parkea, foru-titulartasuneko errepide bateko bazterbidean kokatutako edukiontzien aldamenean) trafikoa, bide-segurtasunaren eta motor-ibilgailuen araudia hautsiz gero udalak zehatzeko duen eskumenaren harira erakunde honek adierazitako zalantzari dagokionez:

*“Horri dagokionez, Andoaingo Trafikoko Ordenantza orokorraren 2. artikulua, ordenantza horren aplikazio-eremua zehazten duenak, honako hau ezartzen du:*

*“Ordenantza honek honako alderdi hauek arautuko ditu: zirkulatzean herri barruko bideak erabiltzea, zirkulazioa antolatzea, kudeatzea, zaintzea eta arauak betearaztea, berezko agenteen bidez edo Ertzaintzaren laguntzaz, herri bideak udalaren titulartasunarenak direnean, bai eta arau haustea salatzea eta zigortzea, eta ibilgailuak ibilgetzeko, herri barruko bidetik kentzeko eta gordetzeko, hots, trafikoa hobetzeko zehatztasuneko neurriak hartzea. Horretarako, udalerriaren erabilera publikoko aparkalekuetan eta bideetan ibilgailuak aparkatzeko funtzio, espazio eta denbora arauak finkatuko ditu”.*

*Horrekin batera, aipatu behar da Andoaingo Udala Otietako parke naturala babesteko gauzatzen ari den strategiaren barruan, pandemia hasi zenetik, parke naturalera ibilgailuarekin sartzeko debekua indarrean dagoela, honako kasu hauetan izan ezik: Andoainen bizi diren bizilagunentzat, haien bizilekurako sarbide bakarra bide hori denean, eta arrantza-barrutira Gipuzkoako Foru Aldundiaren behar bezalako baimenarekin joaten diren arrantzeentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelen titularrentzat.*





*Horretarako, Udalak baimena eskatu dio Foru Aldundiari, bera baita bidearen titularra, asteburu eta jaiegunetan, Aste Santutik uda amaierara arte sartzeko debekua ezartzeko, eta Udala arduratzen da ibilgailuen aldi baterako zirkulazio-muga horri dagokion seinale guztiak jartzeaz, eta Udaltzaingoa arduratzen da eremua kontrolatzeaz eta zaintzeaz.*

*Era berean, adierazi behar da Otietako parke naturaleko aparkalekuen sorrera eta kudeaketa duela urte batzuk egin zuela Udalak, Aldundiaren baimenarekin, eta horregatik, Trafikoko Udal Ordenantzak dioen bezala, Udala dela udalerriko erabilera publikoko bide eta aparkalekuetako ibilgailuen aparkalekuen erregulazio funtzional, espazial eta tenporalaz arduratzen dena.*

*Horregatik guztiagatik, uste dugu Alkatetza honek eskumena duela toki horretan egindako arau- hausteak zigortzeko."*

- b) Tipikotasunaren printzipioa urratzeari dagokionez, zeinaren arabera agenteak salatu zuen egitatea ezin baita aplikatutako zehapen-tipoan sartu:

*"Espedientea berraztertu ondoren, egiaztatu da udalerrri horretako Otietako parkean ibilgailua lorategi gainean aparkatzeagatik jarri zela isuna, eta salaketa-idazkian zein zehapen-ebazpenean adierazi da arau-hauste hori udal-ordenantzaren 8.5.4 artikuluan tipifikatuta dagoela, baina artikulua horrek ibilgailuaren geldialdia arautzen du.*

*Ibilgailuan aparkatzea goian aipaturiko udal-ordenantzaren 9. artikuluan arautzen da, eta 8. paragrafoan adierazten da debekatuta dagoela ibilgailuak aparkatzea bertan adierazitako kasuetan eta lekuetan, baita gelditzea debekatuta dagoen leku guztietan ere.*

*Urratutako artikulua adieraztean akats bat egon zitekeen arren, honako hau adierazi behar da:*

- *Arestian adierazi den bezala, ordenantzaren 9.8 artikuluan debekatu egiten du aparkatzea ordenantza horren 8.5.4 artikuluan gelditzea debekatuta dagoen lekuetan. Udaltzaingoarekin ofizial ordeak 2023ko otsailaren 10ean emandako txostenean adierazitakoaren arabera, salaketa-orri egin zuen agenteak "creó oportuno especificar que la infracción era porque el vehículo permanecía en una zona verde, (jardín) en el acceso de un parque natural como así se hace constar específicamente en el artículo 8.5.4 de la ordenanza de tráfico de Andoain".*



*Gainera, bi artikuluetan tipifikatutako arau-hausteak arintzat kalifikatzen dira, eta bietarako aurreikusitako zehapenak 100 eurokoak dira; beraz, emaitza berbera da.*

- *xxx jaunak 2022ko ekainaren 15ean aurkeztutako alegazio-idazkian ez zen horri buruzko alegaziorik egin, eta, alegazio hori egiteko aukera izan arren, honako hau baino ez zuen adierazi (esandakoa literalki): “El vehículo se encontraba aparcado en el arcén junto a un contenedor de vidrio. En ningún caso en un jardín..Solicito la retirada de la denuncia. Puedo aportar fotografías del vehículo aparcado junto al contenedor de vidrio”. Argazki hori alegazio-idazkiarekin batera aurkeztu zen.*
- *Azkenik, adierazi behar da xxx jaunak ez zuela errekurtsorik jarri zehapen- ebazpenaren aurka. Ebazpen hori 2022ko uztailaren 13an jakinarazi zitzaion, eta, beraz, ebazpen hori administrazio-bidean irmoa bihurtu zen. Gainera, interesatuak jarritako isuna ordaindu zuen 2022ko irailaren 19an.*

Hortaz, beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

### Gogoetak

1. Administrazio horrek interesdunaren kasu zehatzari buruz eman duen informazioa aztertzen hasi baino lehen, udalak egin duen alegazioari heldu behar diogu; izan ere, adierazi dute interesdunak ez zuela inolako errekurtsorik jarri zehapen-ebazpenaren aurka, eta, beraz, administrazio-bidean irmo izan zen. Gainera, premiamenduzko probidentzia jakinarazi ondoren, zehapenaren zenbatekoa ordaindu zuen.

Alegazio horren harira, Arartekoak udal horri gogorarazi behar dio zeintzuk diren Ararteko erakundea arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak erakunde honi esleitu dizkion eskumen fiskalizatzaileak.

Justizia-auzitegiei badagokie ere erregelamenduak egiteko ahala eta administrazio-jarduketaren legezkotasuna, Konstituzioaren 106.1 artikuluan aitortzen denaren arabera, justizia-auzitegietan errekurtsua jartzea ez da herritarrek duten berme bakarra botere publikoen jarduketan aurrean.

Horren harira, gure zuzenbide-estatuak herritarrei eskaintzen dien berme-sistema bikoitza aipatu beharra dago. Hala, hain zuzen ere, alde batetik irismen juridikzionalako bermeak daude, justizia-auzitegietan mugatuak, eta, beste aldetik,



irismen instituzionaleko bermeak Konstituzioaren 54. artikuluan babestuak eta jasoak. Esparru horretan kokatzen da, hain zuzen ere, Ararteko erakundearen lan fiskalizatzailea.

Aurreko guztia ikusirik, azpimarratzekoa da gure ordenamendu juridikoak legebiltzarreko ordezkari guztiei ematen dien baliagarritasuna, administrazio publikoen jarduketan legezketasunaren babesle diren heinean. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoan erakunde hau sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen zioen azalpenean ezartzen denaren arabera, Arartekoa *“egitekoz, herritarrek arduralaritza on bat izateko duten eskubidea babesteko eta legetasun-arauerako oinarririzpidearen bermea izateko Arduralaritza zainpetzera jotzen duen ihardutze-sail bat dugu.”*

Zehazkiago, lege horren 1.2 artikulua dioenez, herritarrak autoritate- eta botere-abusuetatik eta euskal administrazio publikoen zabarkerietatik babestea da erakunde honen eginkizun nagusia. Gomendio hau lan horren baitan kokatzen da.

Hortaz, gure ordenamendu juridikoak erakunde honi esleitzen dizkion kontrol-ahalmenek, gure zuzenbide-estatuan, justizia-auzitegiek gauzatzen duten eginkizun juridikzionala osatzen dute. Edonola ere, herritarrei dagokie beren eskubideen defentsan bide batera eta beste batera jotzeko aukera.

Zehapen-ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtso bat aurkez zezakeen, bai eta administrazioarekiko auzi-errekurtso bat ere, baina interesdunak ez zuen horietako bat ere jartzea erabaki. Premiamenduzko probidentzia jaso ostean zehapena ordaindu zuen, eta, jarraian, Arartekora jo zuen.

Gai horri lotuta, Arartekoak azpimarratu nahi du zehapen-ebazpena irmoa izateak eta premiamenduzko prozedura zehaztutako arrazoiren batengatik soilik aurkaratu ahal izateak ez duela eragozten zehapen-ebazpena erabat deuseza izatea.

Erabat sendotutako jurisprudentzia-doktrina da premiamenduzko probidentzia eragin zuen jatorrizko egintzaren aurka ere egin daitekeela, erabateko deuseztasun-kausa bat dagoenean. Auzitegi Gorenaren 1990eko uztailaren 10eko epaiak adierazi zuenez, premiamenduzko probidentziak jatorri deuseza badu, ezin du ondoriorik izan, deuseztasun hori edozein prozedura-fasetan dagoela ere, ezta betearazpen-prozeduran ere. Ildo beretik jo du Auzitegi berak 2002ko urtarrilaren 19ko, 1999ko irailaren 16ko edota 1998ko uztailaren 2ko epaietan.

Beste hitz batzuekin esanda, zehapen-ebazpena irmoa izateak, interesdunak errekurtsorik jarri ez zuelako eta zehapena premiamendu-bidean ordaindu zelako, ez dio erakunde honi eragozten aztertzea ea aurretiazko elementu edo betekizun batzuk betetzen diren ala ez; izan ere, baldin eta elementu edo betekizun horiek



existitzen ez badaude edo baliogabeak badira, zehapen-ebazpena bideraezina izatea eragingo lukete, bai eta premiamendu-bideari ekitea ere. Hori guztia zehapen-prozedurari eragiten dion deuseztasun-kasu bat edo batzuk gertatzen direnean ezarritako zehapen batek aurrera egin ez dezan.

Horren oinarria da erabat deusezak diren egintzek ezin dutela inolako ondoriorik sortu, erabateko deuseztasunaren arrazoiek administrazio-egintzei eragin diezaiekeen legezkotasunik eza larriagoa dakartelako, eta horrek egintza berrikustea edo errebokatzea justifikatuko luke.

Azkenik, administrazioak adierazi du interesdunak aurkeztutako alegazioen idazkian ez dela inolako alegaziorik egiten jokabidearen tipifikazioari buruz, eta soilik aipatu zuela bazterbidean aparkatuta zegoela, beira-edukiontzia baten aldamenean, eta ez lorategi batean.

Nahiz eta interesdunaren alegazioetan tipifikazioan akats bat sumatu daitekeen, Arartekoak uste du administrazioaren alegatu hori aztertzeko ezinbestekoa dela gogoratzea legezkotasun-printzipioak eskatzen duela administrazio-egintzak ordenamendu juridikoarekin bat etortzea, administrazioak legez kanpoko egintzak berrikus ditzan ahalbidetuz. Hori dela eta, interesdunak ildo horretan alegaziorik ez egiteak ez du esan nahi erakunde honek herritarrak agintaritzaren eta botereen abusuetatik eta euskal administrazio publiko baten zabarkerietatik babesteko eginkizuna ez duenik.

Azken batean, deuseztasun-arrazoiei buruz interesdunak alegaziorik ez egiteak ez du eragozten erakunde honek administrazioaren jarduketa garbitzen laguntzeko eginkizuna bete ahal izatea, bai administratuaren intereserako, bai egintza ematen duen administrazioaren interes publikorako.

2. Erreklamazioaren muinari dagokionez, honako hau adierazi behar da, lehenik eta behin: erakunde honek ikusten dituen deuseztasun-akatsak zehapen-organoaren eskumen gabezia eta legezkotasun-akatsen daude; hain zuzen ere, salatutako egintza ezin da sartu aplikatu den arau-haustearen tipoa ( Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 a) eta b) artikulua).

**2.1.** Zehatu den egitatea gertatu zen tokian zehazteko eskumenari dagokionez, kontuan hartu behar da Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintza Errege Dekretuaren (aurrerantzean, Trafiko-legea) 7. artikulua ematen dizkien eskumenak egikaritzen dituztela udalerriek. Besteak beste, honako eskumen hauek ematen zaizkie: *Beren titulartasuneko hiri barruko bideetan trafikoa arautzea, antolatzea, kudeatzea, zaintzea eta*



*diziplina ezartzea, beren agenteen bitartez, bai eta bide horietan egindako arau-haustek salatuta eta zehatzea ere, betiere hori ez badu beste administrazio batek berariaz esleituta.”*

Trafiko-legeak arau orokor gisa ezartzen du hiriarteko bideetan eta zeharbideetan egindako arau-haustek zehatzeko eskumena egitatea gertatu den probintziako Trafikoko buruarena dela (84.1 artikulua), eta, bestalde, udalerrri bakoitzeko alkatetzaren eskumena dela hiri barruko bideetan gertatutako zirkulazioaren esparruko arau-haustek zehatzea (84.4 artikulua).

Halaber, udalak adierazi duen bezala, Andoaingo Trafikoko Ordenantza Orokorren 2. artikulua arauaren xedea zehazten du, eta hauxe dakar:

*“Ordenantza honek honako alderdi hauek arautuko ditu: zirkulatzean herri barruko bideak erabiltzea, zirkulazioa antolatzea, kudeatzea, zaintzea eta arauak betearaztea, berezko agenteen bidez edo Ertzaintzaren laguntzaz, herri bideak udalaren titulartasunarenak direnean, bai eta arau haustek salatzea eta zigortzea, eta ibilgailuak ibilgetzeko, herri barruko bidetik kentzeko eta gordetzeko, hots, trafikoa hobetzeko zuhurtasunezko neurriak hartzea. Horretarako, udalerrriaren erabilera publikoko aparkalekuetan eta bideetan ibilgailuak aparkatzeko funtzio, espazio eta denbora arauak finkatuko ditu.”* (azpimarra gurea da)

Trafiko-legearen I. eranskinak bideen oinarriko kontzeptuak argitzen ditu trafikoaren inguruko eskumenari dagokionez:

*“70. Herria. Eraikinak dauden eremua, sartzeko eta irteteko bideetan herri-sarrera eta herri-irteerako seinaleak dituena.*

*71. Zeharbidea. Herria igarotzen duen errepide-zatia da zeharbidea. Ez dira zeharbidetzat hartuko ordezko bide bat edo saihesbidea duten bide-zatiak baldin eta horietarako sarbidea badute.*

*72. Hiriarteko bidea. Herritik kanpo dauden bide publikoak dira.*

*73. Hiri barruko bidea. Herri barruan dauden bide publikoak, zeharbideak izan ezik.”*

Hortaz, trafikoaren ondorioetarako, udalak zehatzeko eskumena du udalaren titulartasuneko hiriarteko bideetan, hau da, herriaren barruan dauden bide publikoetan (herri gisa hartzen da eraikinak *dauden eremua, sartzeko eta irteteko bideetan herri-sarrera eta herri-irteerako seinaleak dituena*).



Udalak uste du hizpide den zehapena egiteko eskumena duela honako arrazoi honengatik: baimena eskatu zion Foru aldundiari, bide horren titularra denari, debekua ezartzeko asteburuetan, jaiegunetan eta data jakin batzuetan parkera sartzeko, salbu eta pertsona batzuentzako, eta mugaketa horretarako seinaleak jartzeko arduraduna izateko baimena ere eskatu zuen. Halaber, eskudantzia hori babesteko adierazi du duela urte batzuk parkeko aparkalekuak sortu eta kudeatu zituela Foru-aldundiaren baimenarekin.

Arartekoa ez dago ados jarrera horrekin eta udalaren justifikazioarekin; izan ere, zehatzeko ahala legez edo erregelamenduz ahal hori berariaz eskuordetuta duten administrazio-organoei dagokie (legezkotasun-printzipioa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 25. artikulua). Hortaz, alegatutako inguruabarrek ez diote zehatzeko eskumenik ematen trafikoaren gaiaren inguruan.

Espedientean dauden argazkietan ikus daiteke tokia, zeinean salaketa egin baitzen (Otieta parkea, errepide bateko bazterbidean kokatutako kontainer batzuen aldamenean), ez dela hiri barruko bide bat, ez baitator bat Trafiko-legeko I. eranskinean jasotako definizioarekin (ez dago herriaren barruan). Andoingo udal-mugarteren zati izan arren, herrigunetik bi kilometrora dagoen gunea bat da, eta bertan amaitzen da GI-3091 errepidea, zeina Gipuzkoako Foru Aldundiaren titulartasuneko baita, udalak berak berretsi duen bezala.

Hori dela eta, erakunde honek uste du udalak, eskumenak bereganatzearen ondorioz, aipatu berri den araudia urratu duela.

Laburbilduz, zehapen-organoaren eskumenik ezak ezarritako zehapena erabat deuseztatzea eragingo du, eta, horregatik, ondoriorik gabe utzi beharko da (39/2015 Legearen 47.1.b) artikulua).

- 2.2. Prozedura osoan zehar mantendu den zehapenaren tipifikazioaren akatsari dagokionez (salaketa-buletinean jadanik zegoen jasota), Arartekoak uste du erabat eragiten diola Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 27. artikuluan ezarritako tipikotasun-printzipioari, eta balizko erantzulearen eskubidea urratzen du *"Jakinarazpen batean jasotzea: zer egitate inputatzen zaien, egitate hori zer arau-hauste izan daitekeen eta zer zehapen ezar dakiekeen; orobat, instrukzio-egilea nor den, zehapena jartzeko eskumena zer agintarik duen, eta zer arauk esleitzen dion eskumen hori"*. (39/2015 Legearen 53.2.a) artikulua).







Zehapenaren tipifikazioa berekin dakar jokabide jakin bat arau tipifikatzailearen egitatezko kasuarekin bat etortzea, eta zehatzeko baldintza funtsezkoa eta erabakigarria da.

Gogoratu behar da, Konstituzio Auzitegiaren arabera, zehapen-tipikotasunerako eskubidea zehatzeko legezketasunerako eskubidearen adierazpen bat dela (Konstituzioaren 25. artikulua) eta urratu egiten da, besteak beste, gertaera tipiko bat zigortzen denean, zeina ez baita sartzen agintaritza zehatzaileak aplikatutako tipo zehatz batean; hau da, printzipio hori urratzen da administrazioak aplikatutako arau-manuak ez badu salatutako jokabidea barne hartzen (Konstituzio Auzitegiaren 218/2005 Epaia, irailaren 12koa, eta Konstituzio Auzitegiaren 113/2008 Epaia, irailaren 29koa, 4. zuzenbideko oinarria, besteak beste).

Salaketa-buletinak "lorategi batean aparkatzea" jasotzen du salatutako egitate gisa, baina urratutzat jo den manuak (Ordenantzaren 8.5.4 artikulua) xedatzen du erabat debekatuta dagoela espaloietan, pasealekuetan, oinezkoen guneetan eta lorategietan gelditzea.

Ibilgailua bi minutu baino gehiagoz ibilgetzea da aparkatzea. Bestela, gidaria ibilgailutik ateratzen ez den kasuetan, gelditzea baino ez da. Bi minutu baino gutxiagoko gelditze-egoera horretan ez dagoen ibilgailua aparkatuta dagoela esaten da. Ordenantzako 9,1. artikuluan hauxe dakar: *"Ibilgailua bi minutu baino gehiagoz ibilgetzea da aparkatzea, baldin eta ibilgetze hori zirkulazioak eragin ez badu edo legezko aginduren bat betetzeko egin ez bada."*

Ordenantza horretako V. eranskinak arau-haustea eta zehapenak jasotzen ditu, eta gelditzearen edo aparkatzearen arabera sailkatzen ditu. Udal-ordenantza horrek jasotzen ez dituen kasuetarako, ezarrita dago zuzenean aplikagarria izango direla Trafiko-legea eta horren araudi-xedapenak.

Arartekoari bidalitako bigarren erantzunean, udalak adierazi zuen Ordenantzaren 9.8 artikulua aparkatzea debekatzen duela gelditzea debekatuta dagoen tokietan, Ordenantzaren 8.5.4 artikulukoetan, adibidez (espaloietan, pasealekuetan, oinezkoen guneetan eta lorategietan gelditzea), eta artikulua bietan tipifikatutako zehapenak arau-hauste arinak direla eta isun bera dutela; beraz, emaitza berbera da.

Horren ildotik, gogorarazten da legezketasun-printzipioak ezartzen duela modu murriztailean interpretatu behar direla legez kontrako jokabideak eta horietarako zehapenak tipifikatzen dituzten arauak, eta analogia alde batera utzi behar dela. Zehatzeko araua aplikatzen duenak bat etorri behar du



tipoaren deskribapenarekin; izan ere, bestela, arbitrarioki jarduten ariko litzateke, eta, printzipioz, lege-erreserbakoak diren eskumenak inbaditzen.

Hori horrela, jokabideari aplika dakiokkeen manua identifikatzeari dagokionez hautemandako irregulartasuna ezin da kontu formal hutsal batera edota akats material batera mugatu; izan ere, zehapen-prozedura honek zigor-arloko prozeduren izaera bera du, eta lehentasunezkoa izan behar du legezketasunaren eta defendatzeko eskubidea bermatzearen printzipioak errespetatzeak.

Erakunde honen ustez, interpretazio finalista bat onartzea, tipo horretan sartzen ez diren jokabideetara hedatzeko, zehapen bera dutelako eta ezarritako zehapenari eusteko asmoz, administrazioari legeetan tipifikatuta ez dauden egitateengatik zehapenak ezartzen uztea izango litzateke.

Horrenbestez, legezketasun-akats hori gertatuz gero, ezarritako zehapena erabat deuseza izango da, eta, horregatik ere, ondoriorik gabe utzi beharko da (39/2015 Legearen 47.1.a) artikulua).

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Andoaingo Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

## GOMENDIOA

Ondoriorik gabe utz dezala kexagileari ezarritako zehapena, gomendio honetan zehar azaldutako arrazoiengatik, eta kexagileak ordaindutakoa itzultzeko erabakia har dezala.